

EZKER FUNDAZIO SOBERANISTEN FOROA

Adierazpena

Apurtu giltzarrapoak: 1978ko erregimenaren garaipen demokratikoaren alde

1978ko Erregimentzat ezagutzen duguna ezarri zenetik 40 urte bete direla, gaur egun Espainiako Erresuma osatzen duten hainbat herrialde eta naziotako Fundazio eta erakundeok hausnarketa hau zabaldu nahi dugu. Konplizitate eta elkartasunak ehuntzeko deialdia da hau, giltzarrapoak apurtu eta herrien zein pertsonen askatasunari behingoz eta betiko bidea zabal diezaiogun.

Trantsizio eredugarriaren kontakizunera behin eta berriro itzultzen dira konponbide magikoen bila; honen aurrean, guk uste dugu Francoren heriotzetik honako fase politikoaren bilana egiteke edo amaitzeko dauden zereginez beterik dagoela, trantsizioa burutu zeneko indar korrelazioaren ondorioz. 2011n, krisialdi larria eta herri mobilizazioak zirela eta, elkarbizitza eredu berrizteko aukera zabaldu zen. Hala ere, Estatuaren bitartekoek martxan ipini zituzten erantzun guztiak manipulazioan, ikaran eta errepresioan oinarrituak izan ziren eta, hortaz, aipatutako aukera hori gaur egun urrun dagoela dirudi eta Estatu jokamolde gero eta kezkarri zein autoritarioagoetara jotzen ari da. Estatu errotik demokratizatzeko aukera historikoa galdu egin da eta, honetaz gain, gorroto eta banaketa sortzen duten diskurtso eta jokabide faxistak hedatzen ari dira, Andaluziako hauteskundeetan ikusi dugunez; bien bitartean, desberdinkeriak, instituzionalizatutako ustelkeria eta bidegabekeriak areagotzen ari dira, horixe baita eskuin muturraren itun berriek defendatzen duten "ordena". Era berean, Europaren promes faltsua amesgaizto bihurtzen ari da eta uzten ari zaigun ondarea prekarizazioa, zorra eta erabakimenaren pribatizazioa baino ez da, pertsonen eta herritarron premietatik gero eta urrunago, elite finantziario eta bere zerbitzura dauden teknokratengandik gero eta hurbilago.

Gutziz beharrezkoa da gogoratzea Francisco Francok 1969an egindako aipamena: bere ondorengotzat Juan Carlos Borbón errege moduan izendatu zuenean, dena lotuta eta ondo lotuta utziko zuela, alegia. Honek indarrean dirau, Estatuaren instituzio nagusi askotan eroso dauden erregimen frakistaren oinordeko ideologikoen bitartez. Hala nola frankismoa kondenatzeari uko egitea, memoria historikoaren benetako prozedura erreparatzaileari ekin nahi ez izatea, monarkiaren iraupen eztabaidaezina eta, herrien borondatearen gainetik, lurralde ereduaren zein Estatuaren zatiezintasunaren inguruko eztabaidari ekiteko galarazpena. Elementu hauek guztiek esku loturik dagoen demokrazia uzten dute agerian. Hainbat korapilok lotzen dute demokrazia hori, baina korapilo horiek, atzean utzi beharrean, berriztu eta berreraiki egin dira kapitalismo oldarkor eta gero eta autoritarioagoaren garai

honetan. Birzentralizazio kezkarriari ekiten ari zaio, benetako Espainia anitza balizko Espainia homogeneoaren kortse estuan lotzearren. Birzentralizazio honen hainbat zantzu ditugu: Katalunian salbuespen neurriak aplikatzen dira herriari ukatzeko askatasunez erabaki dezan Estatuaren parte izaten jarraitu nahi ote duen; ETaren desagerpenaren ondoren Euskal Herrian sortu den une historiko berriaren aurrean Estatuaren itxikeria; gaztelaniaz besteriko hizkuntza eta kulturak gutxieteko estrategia sistematikoa; finantziario eta Estatuaren egituraketa eredu guztiz maltzur eta bidegabeak ezartzen dira, herrien premia eta nahien gaintetik; legebiltzar autonomikoei onartutako legeak etengabe deuseztatzen edo aldarazten dira... Espainia hori duela 30 urte baino zentralistagoa da eta ez litzateke islatuko 1978ko Konstituzioaren izpiritu deszentralizatzailean, ezta autonomiak deuseztatzea konplexurik gabe aldarrikatzen duen eskumaren diskurtsoan ere.

Espainiako Konstituzioak hezurmamtzen duen Estatu eredu berrikusteko immobilismoa justifikaezina da, areago kontuan hartzen badugu Konstituzioaren balizko esentziak gordetzen dituzten horiek ez zutela batere arazorik izan Troikaren eskakizunak betetzearren aldatzeko, herritarrei galdetu gabe eta azkar baino azkarrago. Euren bizitzen agintea hartu nahi duten jendarte eta belaunaldia itotzen ari dira korapilo zahar eta berrien artean, baina guk ez dugu etsia hartzen eta ez gaude prest bukle amaitezin hau pairatzeko. Ez dugu onartzen ortzimuga posible bakarra izatea '78ko erregimenaren jarraipena ala inboluzio erreakzionario are okerragoa. Izan ere, Estatu botereen eta oligarkien erantzuna baldin bada gaur egun ikusten ari garena, logika demokratikoaren aurkakoa, alegia, honen arrazoia da hainbat eremu eta mailetatik kontra egiten ari zaiola -feministotik, herrien askapen prozesuetatik edo pentsionisten borrokaz- eta honek erregimenari kalte egiten diola. Honen bitartez zabaldu ahal ditugu beste bide batzuk. Katalunia eta gainontzeko herrien eskakizunei demokratikoki erantzuna ematea posible da; estatua berrantolatzea posible da, errealitate plurinazionalaren aitortza formaletik harago, aitortza efektiboaz. ETA osteko garaiari konponbide demokratikorako asmoz ekitea posible da. Posible da herrien artean elkarren ezagutza eta errespetua sustatzea, gorrotoa erein ordez. Merkatuen edo zorraren aurrean bestelako estrategia batzuk mahaigainera daitezke, banka eta merkatuak berriro kontrol demokratikoaren pean jarri ahal dira eta bidegabekeria fiskal zein ustelkeriari aurre egin dakieke. Gehiegikeria eta errepresioarekin amai daiteke eta eskubide kolektibo zein indibidualak urratzen dituen legedia deuseztatu ahal da. Bizi osoan zehar lan egin dutenei pensio duinak berma dakizkieke. Lan harremanen estatalizazioari eta prekarizazioari buelta eman dakioke eta baldintza laboral eta sozial hobeto egiterik badago, lurralde eta nazio bakoitzeko errealitate sozioekonomikoaren eta bertako ordezkariaren arabera. Hegoalde globaleko krisialdi larria –Europa larriagotzen duena- beste modu batez kudeatu ahal da, gosete zein gerratik ihes egitera behartuta dauden lagunen arazoari helduta, jatorrian zein helmugan. Patriarkatuaren kontrako borrokari serio ekin ahal zaio, baldin eta benetan nahi badugu indarkeria matxistarekin eta zapalketa patriarkalaren beste moduekin amaitu eta jendarte benetan berdinzaleak eraiki nahi baditugu. Eskubide sexualak berma daitezke, identitate eta bizimodu aniztasuna beste modu batez kudea daiteke. Oligarkien interesen menpe egongo ez den ekonomia ekologikorantz egin dezakegu.

Hau guztia zaila da eta erdiesteko gehiengo zabalak zein konplizitate konplexuak beharko dira. Horretaz jakitun gara: gure asmoa ez da hausnarketa abstraktoa egitea, proiektu demokratizatzaile oro egingarria izan behar baita. Hau dela eta, hain zuzen, nabarmentzen dugu '78ko erregimena gaintzeko modua planteatu behar dela, zeren eta ez baita posible neurri hauei ekitea inposaketak eta egiturazko bidegabekeriek ezaugarritzen duten egoera honetan, eredu honetan, zeinen helburu nagusia baita ekiditea herri borondateak inoiz gaintzea.

Honengatik guztiagatik, erregimen hau behetik ganezkatzera deialdia da gurea, herri bakoitzetik, borroka eremu zehatz bakoitzetik, konplizitateak ehuntzen eta indarrak batzen, erritmo eta estrategiak errespetaturik, baina kontzientzia hartuta justizia sozialeko ortzimuga demokratikoa aniztasuetik konpartitzen dugunon artean garrantzitsua dela konfrontazio antzuak ekiditea.

'78ko erregimena agortuta dago eta konpromisoa hartzen dugu demokrazia errealaren, askatasunen eta justiziaren eredurantz eraldatzeko eta gaintzeko. Etorkizunak gure iragan beltzenaren antza har dezake ala indar progresistek behetik egindako presioak gainezka dezake; hein batean, geure esku dago. Ez dezagun aukera hau gal; apurtu ditzagun giltzarrapoak eta zabal ditzagun bide berriak. Feministak, subiranistak, federalistak, ekologistak, joera eta mota ezberdinetako errepublikanoak, demokratak, oro har, gai izan behar gara batzen gaituen horretan laguntzeko eta bakoitzaren estrategia zilegiarekin bateratzeko. Eta eskubide guztiak pertsona eta herri guztientzako aldarria da batzen gaituena. Bidean gaude denok eta bidean elkar topatzeko gai izan behar dugu.

Honengatik guztiagatik, behean sinatzen dugun fundazio eta elkarte guztiok, gaur egun Espainiako Erresuma osatzen duten hainbat lurralde eta naziotakook, indar politiko eta sozial subiranista eta ezkertiarrei dei egiten diegu konplizitateak ehun ditzagun, askatasun politikoen, balio errepublikar eta herrien erabakitzeko eskubidearen defentsa eraginkorra egin dezagun. Azken batez, giltzarrapoak apurtzeko eta 1978ko erregimena behingoz gaintzeko.

Sintzatzaileak:

- *Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions (CIEMEN)*
- *Fundació Josep Irla*
- *Nexe Fundazioa*
- *Darder-Mascaró Fundazioak*
- *Poble Lliure*
- *Iratzar Fundazioa*
- *Ipar-Hegoa Fundazioa*
- *Manu Robles Arangiz Fundazioa*
- *Alkartasuna Fundazioa*
- *Alternatiba*
- *Galiza Sempre Fundazioa*
- *Laboratorio de Ideas Láncara*
- *Grupo de Estudios Díaz del Moral*

FORO DE FUNDACIONES SOBERANISTAS DE IZQUIERDA

Declaración

Romper candados: por una superación democrática del régimen del 78

Cuando se cumplen 40 años de la instauración del conocido como Régimen del 78, Fundaciones y entidades de los diferentes territorios y naciones que conforman hoy el Reino de España hemos querido compartir esta reflexión que es a la vez un llamamiento a tejer complicidades y solidaridades que permitan, de una vez por todas, romper los candados y abrir caminos a la libertad de pueblos y personas.

Frente al relato de una transición ejemplar a la que retornar una y otra vez en busca de soluciones mágicas, creemos que el balance del periodo político transcurrido desde la muerte de Franco está lleno de tareas pendientes o inconclusas como consecuencia de la correlación de fuerzas desde la que se llevó a cabo la transición. En 2011, a causa de la gran crisis y de las movilizaciones populares, se abrió una ventana de oportunidad para regenerar nuestro modelo de convivencia. Sin embargo, todas las reacciones puestas en marcha desde los resortes del Estado se han basado en la manipulación, el miedo y la represión, y hacen que hoy en día parezca lejana la posibilidad, y el Estado está degenerando en formas cada vez más inquietantes y autoritarias. Se ha perdido una oportunidad histórica de democratizar radicalmente el Estado y, además, los discursos y actitudes fascistas generadoras de odio y división ganan terreno como se ha visto tras las elecciones andaluzas, mientras crecen la desigualdad, la corrupción institucionalizada y las injusticias, porque ese es el "orden" que los nuevos pactos de extrema derecha han venido a defender. Así mismo, la falsa promesa europeísta está tomando forma de pesadilla con un legado de precarización, deuda y privatización de la capacidad de decisión, cada vez más lejos de las personas y sus necesidades la población y más cerca de las élites financieras y los tecnócratas a su servicio.

Resulta de todo punto necesario recordar la referencia a dejar todo atado y bien atado de Francisco Franco en 1969 al nombrar a Juan Carlos de Borbón su sucesor a título de Rey, que, en 2018, sigue en vigor a través de los herederos ideológicos del régimen franquista que todavía encuentran acomodo en muchas de las principales instituciones del Estado. Elementos como: la persistencia en la no condena del franquismo, las resistencias a abordar un verdadero proceso reparador de memoria histórica, el mantenimiento incuestionado de la monarquía y la imposibilidad de abrir debates sobre el modelo territorial y la indivisibilidad del Estado al margen de la voluntad de los pueblos. Elementos todos ellos que evidencian la existencia de una democracia maniatada. Una democracia sujeta por nudos que, lejos de dejarse atrás, han sido reconstruidos y renovados en estos tiempos de capitalismo agresivo y cada vez más autoritario. La aplicación de medidas de excepción en Catalunya negando al pueblo la

posibilidad de decidir libremente si desea seguir formando parte del Estado, la cerrazón frente al histórico tiempo nuevo abierto en Euskal Herria tras la desaparición de ETA, la estrategia sistemática de minorización de lenguas y culturas diferentes de la castellana, la persistencia en imponer modelos de financiación y estructuración del estado sumamente perversos, injustos y que no se corresponden con las necesidades y aspiraciones de los pueblos, así como la constante anulación i/o modificaciones de leyes aprobadas por los parlamentos autonómicos, indican una preocupante recentralización que intenta aprisionar a la España plural real en el estrecho corsé de una España homogénea inexistente. Una España que es hoy más centralista que hace 30 años y que no se reconocería siquiera en el espíritu descentralizador de la propia Constitución del 78, ni en el discurso de la derecha que plantea sin complejos el desmantelamiento de las autonomías.

El inmovilismo a la hora de revisar el modelo de Estado consagrado por la Constitución española es aún más injustificable si tenemos en cuenta que los supuestos guardianes de sus esencias no tuvieron problema en modificarla para someterse a las directrices de la Troika, sin consultar a la ciudadanía y en un tiempo récord.

No nos resignamos a sufrir un bucle interminable de articulación entre viejos y nuevos nudos que asfixian sociedades y generaciones cada vez más maduras y deseosas de tomar las riendas de su vida. No aceptamos que el único horizonte posible oscile entre la continuidad del régimen del 78 y una involución reaccionaria aun peor. De hecho, si la reacción de los poderes del Estado y las oligarquías es la que estamos viendo, contraria a toda lógica democrática, es porque las distintas impugnaciones desde espacios y niveles diversos, desde el feminismo, los procesos de liberación de los pueblos o la lucha de los pensionistas, están haciendo mella en el régimen, y es aquí desde donde podemos abrir otros caminos. Es posible atender democráticamente las demandas del pueblo de Catalunya y de los demás pueblos, es posible reorganizar el estado desde el reconocimiento no formal sino efectivo de su realidad plurinacional. Es posible afrontar el tiempo post-ETA en clave de resolución democrática. Es posible sembrar el conocimiento mutuo y el respeto entre los pueblos en lugar del odio. Se pueden plantear otras estrategias frente a los mercados o la deuda, se puede poner de nuevo a la banca y los mercados bajo control democrático y hacer frente a las injusticias fiscales y la corrupción. Es posible terminar con los abusos y la represión y eliminar la legislación que cercena derechos colectivos e individuales. Se pueden asegurar pensiones dignas a quienes han trabajado toda la vida. Hay que revertir la estatalización y la precarización de las relaciones laborales y avanzar en mejores condiciones laborales y sociales en función de las realidades socioeconómicas y de representación de cada territorio y nación. Se puede gestionar de otro modo la grave crisis que Europa contribuye a agravar en el Sur global, atendiendo tanto en origen como en destino el problema de quienes se ven obligados a huir del hambre y la guerra. Se puede afrontar en serio la lucha contra el patriarcado si de verdad queremos acabar con la violencia machista y otras formas de opresión patriarcal y construir sociedades verdaderamente igualitarias. Se pueden garantizar los derechos sexuales, se puede gestionar de otro modo la pluralidad de identidades y formas de vida. Se puede transitar hacia una economía ecológica no subordinada a los intereses de las oligarquías.

Todo esto es difícil y requerirá de amplias mayorías y complejas complicidades, somos conscientes de ello: nuestra intención no es ofrecer una reflexión abstracta sin conexión con la necesaria factibilidad de todo proyecto democratizador. Precisamente por eso, subrayamos que es necesario plantearse cómo superar el Régimen del 78, porque no es posible acometer estas medidas en un escenario marcado por la imposición y las injusticias estructurales, un modelo cuyo objetivo principal es evitar ser desbordado por la voluntad popular.

Por todo ello, la nuestra es una llamada a desbordar este régimen desde abajo, desde cada pueblo, desde cada espacio concreto de lucha, tejiendo complicidades y aunando fuerzas, respetando ritmos y estrategias, pero tomando conciencia de la importancia de evitar confrontaciones innecesarias y contraproducentes entre quienes compartimos desde la diversidad un horizonte democrático y de justicia social.

El régimen del 78 está agotado y nos comprometemos a trabajar para que su transformación y superación sea hacia un modelo de democracia real, libertades y justicia. El futuro puede parecerse a nuestro pasado más oscuro o resultar desbordado por la presión desde abajo de las fuerzas progresistas; en parte está en nuestra mano. No perdamos esta oportunidad; rompamos los candados y abramos nuevos caminos. Feministas, soberanistas, federalistas, ecologistas, gentes republicanas de diferente signo y escala, demócratas en general, debemos ser capaces de apoyarnos en lo que nos une y aunarlo con la legítima estrategia de cada cual. Y lo que nos une es la demanda de todos los derechos para todas las personas y todos los pueblos. Arrieros y arrieras somos y en el camino debemos ser capaces de encontrarnos.

Por todo ello desde las fundaciones y entidades abajo firmantes, de los diferentes territorios y naciones que hoy forman parte del Reino de España llamamos a las fuerzas políticas y sociales soberanistas y de izquierdas a establecer complicidades que permitan una eficaz defensa de las libertades políticas, los valores republicanos y el derecho a decidir de los pueblos. En definitiva: romper candados para superar el régimen del 78

Firmantes:

- *Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions (CIEMEN)*
- *Fundació Josep Irla*
- *Fundación Nexe*
- *Fundaciones Darder-Mascaró*
- *Poble Lliure*
- *Iratzar Fundazioa*
- *Ipar-Hegoa Fundazioa*
- *Manu Robles Arangiz Fundazioa*
- *Alkartasuna Fundazioa*
- *Alternatiba*
- *Fundación Galiza Sempre*
- *Laboratorio de Ideas Láncara*
- *Grupo de Estudios Díaz del Moral*